

Ijentea, 1, 20003 Donostia
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Donostia, 2016ko urriaren 6a

MOZIO ARRUNTA, ABENDUAREN 3a, EUSKARAREN EGUNA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN JAIEGUN GISA EZARTZEARI BURUZKOA

Amaia Martin andreak, Irabazi Donostia taldearen bozeramaileak, indarrean dagoen Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, Udalbatzan aztertzeko aurkeztu du MOZIO ARRUNT hau, abenduaren 3a, Euskararen Eguna, EAEn jaiegun gisa ezartzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Euskadi.eus webgunean irakur daitekeen moduan, Euskararen Egunaren aldeko lehen aldarrikapenak antzinakoak dira: Errepublikaren garaian Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaleak Bazkunak bitarte, antolatutako antzerki eta olerti zein bertsolari egunak... Aipatzekoak dira, halaber, Espainiako Gerra Zibilaren ondorioz Iparraldera alde egindako euskaltzaleek zein bertokoek Euskaltzaleen Biltzarraren babespean egindako lanak. Sasoi horretakoa (1949) da, hain justu, Eusko Ikaskuntzak sortutako lehenengo Euskararen Eguna. Abenduaren 3an ospatzen den Euskararen Nazioarteko Eguna 1995ean instituzionalizatu zuten Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak. Harrezkero, euskararen erabilera eta euskara bera sustatzeko asmoz, hainbat elkarte, erakunde publiko eta herritarrek milaka ekitaldi antolatu dituzte (mahai-inguruak, erakusketak, tailerrak, azokak, mota desberdinetako ikuskizunak, aurkezpenak...) egun seinalatu horretan, Euskal Herriko bazter guztietan, euskara bultzatu eta omentzeko. Donostiako Udalak berak jarduera agenda ederra du Euskararen Eguna ospatzeko. Iaz, aurreko urteetan bezalaxe, 150 jarduera garatu ziren hiriko auzo guztietan zehar: Mintzodromoa, literatura saioak, familientzako lantegiak, haur jolasak, herri kirolak, zinema, antzerkia... Aurten, halaber, Kultur Hiriburutza dela eta, "Hizkuntza Aniztasunaren Europako Gailurra" egingo da abenduaren 8tik 10era. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak ezagutzen ditu hizkuntza eskubideak: *"Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik"*. Gailurraren helburua da Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren (Bartzelona, 1996) printzipioak eta espirituak garatzea ahalbideratuko duen protokolo bat lantzea, hizkuntza erkidegoen arteko benetako berdintasuna erdiesteko.

Azken 35 urteetan politika ugari garatu dira euskara ikasteko eta erabiltzeko eta aurrerapauso handia egin da bide horretan: Euskal Autonomia Erkidegoak 300.000 hiztun baino gehiago irabazi ditu eta historikoki presentziarik izan ez duen gizarte esparruetan kokatu da euskara.

Hori guztia dela eta, uste dugu abenduaren 3a, Euskararen Eguna, jaiegun gisa ezarri beharko litzatekeela Euskal Autonomia Erkidegoan, euskararen garrantziari merezi duen ezagumendua emateko. Badakigu eztabaida hori ez dela berria eta arrakastarik gabe aztertu dela Eusko Legebiltzarrean eta beste zenbait erakundetan, egun horrek abenduaren 6ko eta 8ko jaiegunekin batera ia astebeteko "zubia" sortuko lukeela argudiatuta. Horregatik, Patxi Lópezen Eusko Jaurlaritzak urriaren 25a ezarri zuen jaiegun gisa, Gernikako Estatutua onartu zeneko eguna, eta Iñigo Urkullurenak, berriz, 2016ko urriaren 7a, lehen Eusko Jaurlaritzaren 80. urteurrena ospatzeko.

Horregatik aurkeztu du Irabazi Donostia taldeak honako

MOZIO ARRUNTA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Grupo Político IRABAZI DONOSTIA Talde Politikoa

irabazi
DONOSTIA

Ijentea, 1, 20003 Donostia
irabazi@donostia.eus - Tel. 943481717 - www.irabazidonostia.org

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari abenduaren 3a, Euskararen Eguna, Euskal Autonomia Erkidegoan jaiegun gisa ezartzeko 2017. urtetik aurrera.

Sin.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.